

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

396 zb.  
www.getxo.eus

>> 2025eko Urtarrila

ELIKAGAIEN MANIPULATZAILEA

  
getxogazte

MARTXOA > MAIATZA 2025  
**IKASTARO BERRIAK  
GAZTEBULEGOTIK**

LEHEN SOROSPENAK

DOHAINIK

TAILER ARTISTIKOA:  
PEGATINAK + IMANAK

**Nabarmen**<sup>tzekoak</sup>

> Ikastaro berriak Gaztebulegotik lehen seihilekorako

> Ondoan, adikzioei buruzko informazio, orientazio eta aholkularitzako udal-zerbitzua

> Zabalik dago izen-ematea 2025eko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan



## Otsailaren 17ra arte aurkeztu ahal izango da Zabalik dago izen-ematea 2025eko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan

Otsailaren 17ra arte (astelehena) zabalik egongo da *Euskadiko Gazteak Lankidetzan 2025* programan parte hartzeko izena emateko epea. Programa horretan, 22 eta 30 urte bitarteko ehun bat gazteak parte hartu ahal izango dute.

Esperientzia honek hiru hilabetezko iraupena izango du, batez ere uztailetik urrira. Horretarako, hautatutako pertsonak zuzenean parte hartzen dute Amerika, Asia eta Afrikako herrialdeetako garapenerako lankidetzak-ekintzetan, eta, horri esker, ekintza horien garapena "in situ" ezagutu dezakete. Jarduera egiten den herrialdeko nazioarteko hizkuntza ezagutu beharko da, eta eskaerak online egiten dira (identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da).

Gastuak Eusko Jaurlaritzaren kontura dira: joan-etorriko bi-



daia helmugako herrialdean GGKEarekin harremanetan jartzeko punturaino, bisatua eta erantzukizun zibileko poliza, istripuak eta bidaiako laguntza.

### Egutegia

Izen-ematea: otsailaren 17ra arte.

- Aurrez hautatuen eta ordezkoen zerrenda argitaratzea: martxoaren 5a.
- Aurre-hautatuen topaketa Barrian (Araba): martxoak 21, 22 eta 23.
- Zerrendak, hautatutako pertsonak eta ordezkoiak argitaratzea: martxoak 25.
- Informazio eta orientazio aldia Barrian: apirilak 5 eta 6.
- Ebaluazio-topaketa Barrian: urriak 25 eta 26.

Informazioa eta izen-emateak: [www.gazteukera.euskadi.eus](http://www.gazteukera.euskadi.eus)



Doakoak eta 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat

## Ikastaro berriak Gaztebulegotik lehen seihilekorako

Hiru ikastaro antolatu ditu Udaleko Gazteria Zerbitzuko Gaztebulegoak 2025eko lehen seihilekorako: *Tailer artistikoa: pegatinak + imanak*, *Lehen sorospenak* eta *Elikagaien manipulazaila*. Ikastaroak doakoak dira eta 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude.

Lehenengoa, *Tailer artistikoa: pegatinak + imanak*, datorren martxoaren 22an (larunbata) egingo da, ele bitan. Ikastaroan, nahi diren eranskailuak sortu eta forma eman ahal izango zaie, marrazki, collage edo bestelako konposizioekin. Tailerra 10:00etatik 14:00etara izango da, Algotako Sekula Studioan (Telletxe kalea, 15).

Bigarren ikastaroa, *Lehen sorospenak*, apirilaren 5ean (larunbata) izango da, gaztelaniaz, RKE-Romo Kultur Etxean, 10:00etatik 14:00etara. Bertan, lehen laguntzetako oinarritzko teknikak aplikatzen irakatsiko da, hala nola bihotz-biriketako bizkortzea (BBB), desfibriladore baten erabilera, Heimlich maniobra edo iktus baten sintomak ezagutzen jakitea eta horren aurrean nola jokatu.

Hirugarren eta azken ikastaroa, *Elikagai-manipulazaila*, bi txandatan egingo da RKE. Lehena maiatzaren 27an (asteartea), 16:00etatik 19:00etara, euskaraz, eta bigarrena, maiatzaren 30ean (ostirala), 16:00etatik 19:00etara, gaztelaniaz. Ikastaroa amaitzean, dagokion ziurtagiria emango da.

Izena emateko: tel.: 94 466 03 53; 688 880 985 (whatsapp); [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus); @getxo\_gazte (IG) edo @getxogazte (FB eta X), izen-abizenak, tel., jaiotze-data eta ikastaroaren izena aipatuz.

Jarduera horien helburua da Getxoko gazteei askotariko gaietako buruzko tresnak eta ezagutzak eskaintzea, interes orokorrekoak eta, kasu batzuetan, lan-mundurako prestakuntza gisa ere erabil daitezkeenak, hala nola elikagaien manipulazioari buruzko ikastaroa.

## Gazteentzako informazio-programak

Gazte Bulegoak hainbat zerbitzu eta programa eskaintzen dizkie 14 eta 30 urte bitarteko gazteei. Horien artean daude *Jolastoki*, ikastaroak eta tailerrak eskaintzen dituenak, eta *Hegan*, prestakuntzei, enpleguari, etxebizitzari eta emantzipazioari buruzko informazioa biltzen duena, besteak beste.

Bestalde, Gertu zerbitzuak aholkularitza eskaintzen du Getxoko gazteei zuzendutako elkarte bat sortu nahi bada. Eta baten bateko kide bazara, aukera ditzakezun dirulaguntzei eta abarri buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzen da.

Era berean, gazte-erakundeetako boluntariotzari, bekei eta txarretei (aterpekideak, ikasleak...) buruzko informazioa nahi izanez gero, bulegoarekin jar zaitzake harremanetan (tel.: 94 466 03 53 eta 688 88 09 85 eta [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus)) edo <https://www.getxo.eus/eu/cohesion-social/home-juventud> webgunean kontsultatu eta sare sozialak jarraitu (@getxogazte (X eta FB) eta getxo\_gazte (IG)).

## BEKAK SARIAK

\* Japoniako enpresetan praktikak egiteko *Vulcanus beka*, EU-Japan Centre for Industrial Cooperation erakundeak deituta, unibertsitateko ikasleentzat, honako arlo hauetan: informatika, ingeniari, kimika, elektronikak, bioteknologiak, fisika, telekomunikazioak, ekoizpen-sistemak... Ezinbestekoa da Europako unibertsitateetan matrikulatuta egotea. Bekak urtebeteko iraupena dute, eta bidaiak-gastuetarako eta enpresaren konturako ostaturako 1.900.000 yen hartzen ditu. Eskararak aurkezteko epea: urtarrilaren 20ra arte. Informazioa: telefonoa: +32 (0) 2 282 37 15, [VulcinJapan@eu-japan.eu](mailto:VulcinJapan@eu-japan.eu) eta <https://labur.eus/ZJmQS>

\* 2025eko "Asun Casasola" kontakizun laburren lehiaketa, gazte eta helduentzako izen bereko elkarteak deituta, euskaraz eta gaztelaniaz. Aurtengo gaia indarkeria matxista izango da, eta sariak 50 eta 300 euro artekoak izango dira, kategorien arabera. Kontakizunak aurkezteko epea: otsailaren 8ra arte, hemen: [asuncasasolaipuina@gmail.com](mailto:asuncasasolaipuina@gmail.com). Informazio gehiago: <https://labur.eus/PFn09>

## Romoko Gaztelekuaren programazioa

GureGune gazteleku

**Hilak 2, osteguna:** ASANBLADA: OTSAILEKO PROGRAMAZIOA  
**Hilak 3, ostirala:** SUKALDARITZA: GENERAZIOARTEKO GAILETAK  
**Hilak 4, larunbata:** IRTEERA: IZOTZ PISTA ETA TXIRRIKAK  
**Hilak 5, igandea:** EKINTZA: ERREGE MAGOAK  
**Hilak 9, osteguna:** JOLASA: HERRIA LO  
**Hilak 11, larunbata:** ESKULANA: BUZTINA  
**Hilak 15, asteazkena:** TXAPELKETA: XAKEA  
**Hilak 19, igandea:** SUKALDARITZA: NAPOLITANAK  
**Hilak 24, ostirala:** TAILERRA: GETXO EZAGUTUZ  
**Hilak 25, larunbata:** TAILERRA: HENNA  
**Hilak 28, asteartea:** TXAPELKETA: PING PONG  
**Hilak 30, osteguna:** TAILERRA: BAKEAREN EGUNA

## Algortako Gaztelekuaren programazioa

GauEgun gazteleku

**Hilak 2, osteguna:** ASANBLEA: OTSAILEKO PROGRAMAZIOA  
**Hilak 4, larunbata:** SUKALDARITZA: TXOKOLATADA  
**Hilak 8, 15, 22 eta 29, asteazkena:** ANTZERKIA  
**Hilak 10, ostirala:** ESKULANA: TIRAGOMA  
**Hilak 18, larunbata:** SUKALDARITZA: YOGURTA GRANOLA ETA FRUITU GORRIKIN  
**Hilak 25, larunbata:** IRTEERA: SURFSKATE (UK SKATEPARK BERANGO)  
**Hilak 30, osteguna:** BAKEAREN EGUNA  
**Hilak 31, ostirala:** ESKULANA: GILTZATAKOAK

**ONDOAN**  
ADIKZIOEI BURUZKO  
INFORMAZIO, ORIENTAZIO ETA  
AHOLKULARITZAKO  
UDAL-ZERBITZUA

mendekotasuna eragiten duten jokabideen ondoriozko edozein egoeraz (banakakoa edo familiara) jabetzeko hausnarketa-, kontraste- eta laguntza-espazioa

**NORENTZAT?**  
14-18 urteko gazteak  
Familiarak  
Helduak

**Asteazkena** (aldez aurreko hitzorduarekin)  
14:00 - 17:00

Urgull kalea  
2. solairua  
Algorta

688.72.73.46  
Whatsapp edo telefono bidez astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara

Getxo  
UDALA - AYUNTAMIENTO